



Dantzari Txikien Festa antolatu du Udaberrik

TOLOSA ▶ Apirilaren 1ean egingo dute erromeria eta jai berezia Tolosako kaleetan barrena

HAURRAK ▶ Hego Euskal Herriko lau taldetakoak ariko dira, 200 gaztetxo inguru denera ▶ 2

AMEZKETA ▶

Sahiesbidea egiteko lanak «bide onetik» doazela esan du Udalak

«Espero bezala», urrirako obrak amaituta egongo direla uste dute ▶ 5



Sahiesbidearen hasiera. N. URBIZU



HITZA

Ekin diote Eskolarteko Txapelketari

TOLOSA ▶ Amaitu berri den Pista Estaliko Txapelketan markak hobetu dituzte Tolosa CFkoek; eskolartekoan ari dira orain eskualdekoak ▶ 3

ALKIZA ▶

Herritarrek lehentasunak zehaztu dituzte

Agenda 21 en baitan, batzarra egin dute ▶ 4

LEITZA ▶

Eskolak euskaldu daitezen sinatuko dute

Jaialdia ere antolatu dute umeentzat ▶ 7

LEITZA ▶

Riaño, puntu batengatik bertso finaletik at

Julio Soto pasatu da haren ordezt ▶ 7

ALEGIALDEA ▶

Ondo hasi dute GRAVN Txapelketa eskualdeko pilotariek

Arabarrak mendean hartu eta gero, bizkaitarren aurka ariko dira bihar ▶ 5



Ugaitz Renobalesek irabazi zuen iazko txapelketa. L. MONTES



TOLARE-SAGARDOTEGIA

Apirilak 30 arte irekita

Aste Santuan ostegunetik igandera irekita eguerdi eta gauetan, igande gauean izan ezik

Sagardoa botilan salgai urte osoan

Osiñaga auzoa, 38 - 20120 HERNANI Tel.: 690 698 484 - 943 556 405

Astigarraga-Hernani-Goizueta bidegurutzeko biraleku ondoan daagoen gasolindegia ondofik sartuta. Hernaniko sagardotegi gehienak dauzen eremuan.

KULTURA ▶

ESTI EZEIZA

Euskal jai tradizionalen eszenatoki bilakatuko da aurten ere Tolosa. Apirilaren 1ean egingo baitu Udaberri Dantza Taldeak urteroko erromeria. 110 gazteok hartzen dute parte urtean zehar ematen dituzten ikastaroetan, eta egun honetan Tolosako kaleetan jardungo dute. Jaietan, taldean izandako musikari guztiak festa eta gaur egungo taldearen emanaldia ere ez dira faltako.

Antolatzaileen esanetan, jai hau egingo dute «jendea ohar dadin Tolosan dantza talde bat badagoela». Izan ere, urte hau arte, beste herriekin konparatuz, arrakasta gutxiago zuten Tolosako dantza eskolek.

Dantzari Txikien Festa

Aurten, baina, inoiz baino gazte gehiagok eman dute izena Udaberri Dantza Taldearen ikastaroetan. Hori dela eta, urteroko erromeria horretan txoko berezi bat egingo diete txikienei. Gipuzkoako, Bizkaiko, Nafarroako eta Arabako lau dantza taldek hartuko dute parte, 200 haur inguru denera.

Bestalde, 50 urte beteko ditu datorren urtean Udaberri Dantza Taldeak. Hori dela eta, presaketan lanetan hasita daude. Egitasmoak hurrengo otsaile-

«Apirilaren 1ean denok erromerira»

Hirugarren aldiz, eta 50. urteurrenaren atarian, jai berezia antolatu dute Udaberri Dantza Taldekoek



lazio erromerian parte hartu zutenak, afarian elkartuta, Abastosen. JOXEMI SAIZAR

EGITARAUA ▶

Duela hiru urtetik hona erromeria egiten dute Udaberri Dantza Taldekoek, eta aurtengoan, berrikuntza gisa, txikitxoenei zuzenduko diete. Gipuzkoako, Bizkaiko Nafarroako eta Arabako lau dantza taldek hartuko dute parte. Guztira, 200 haur inguru bilduko dira; hauek bi taldetan banatu eta Tolosako kaleak zeharkatuko dituzte haien koreografiekin.

DANTZARI TXIKIEN FESTA

10:30. Kalejiraren hasiera.
11:30. Kalejiraren amaiera.
12:00. Emanaldiari ekingo diote.
13:30ak aldera. Bazkaria.
16:30-17:00. Umeentzako jai.
18:30-19:00. Dantzari Txiki Festaren bukaera.

ERROMERIA

19:00 Triki-poteoa, baserriarrez jantzita.
21:00-21:30. Afaria, Abastosen.

an hasiko dituzte, eta urte osoa iraungo dute. Ekitaldi hauetako batzuk klasikoak izango dira, belaunaldi ezberdinen arteko emanaldia kasu. Baina hauek ere modu ezberdin batean proposatuko dituzte.

HARITZ IGLESIAS ▶ ENTSEGUETAKO ARDURADUNA

«Gure berezitasuna euskal dantza tradizionalak egitea da»

Sei urterekin hasi zen Haritz Iglesias Udaberri Dantza Taldeko ikastaroetan, eta orain bera da entseguetako arduraduna.

Denbora asko kentzen al dizu dantza mundu honek?

Ez, denbora asko ez du ken-

tzen, astean bitan izaten ditut entseguak. Eta gero, astean behin, ordu eta erdiko klaseak ematen ditut.

Esfortzu fisiko berezirik egin beharra al daukazu?

Bai, forman egon beharra dago, azken batean hanka altxa beharra daukazu eta... Eta dantza egin baino lehen entse-

guetan, beroketa gisa: luzaketa, abdominalak eta korrika egiten dugu.

Ikastaroetan izena ematerako garaian, desberdintasunak nabari al dira nesken eta mutilen artean?

Neska gehiago daude, baina nik esango nuke gehiago dela koadrilen arabera hori. Gu, adibidez, txikitatik hasi ginen ikastaroetan, eta orain, berriz, ni bakarrik geratzen naiz, besteak futbolera-eta pasatu ziren.

Zergatik uste duzu haur gehiago apuntatzen direla futbolera dantzara baino?

Ospe handiagoa dutelako futbol eta pilota jokalariek. Kontua da futbolak izen gehiago duela. Aurten, hala ere, haur askok eman dute izena dantza ikastaroetan; ea horrela mantentzen den.

Euskal dantzetan soilik aritu al zara?

Bai, orain arte hauek soilik egin ditut. Galdetu izan naiz ea nolako ote den klasiko edo... Baina, besterik gabe. Ikastaroak egon izan dira, eta beti izena ematekotan egon naiz, baina azkenean ezer ez.



ESTI EZEIZA

Zein da Udaberriren ezaugarri nagusia?

Gure berezitasuna da euskal dantza tradizionala egiten dugula. Eta hor sortzen da eztabaida: tradizioa mantentzearena edo koreografia berriak sartzeara. Hala ere, aldaketa

eta berrikuntza txiki batzuk sartu ditugu dantzetan.

Eta zuk zer uste duzu?

Aldatu nahi duen jendea ulertzen dut. Hala ere, nik biak egiteko aukera dut, Villabonako Ohinkari dantza taldean ere aritzen bainaiz.

ERIZAINA

ZESTOAKO SAN JUAN
EGOITZAK ERIZAINA
BEHAR DU

Eskaintzen da:

· 8 hilabeteko lanaldia.

Eskatzen da:

· Euskararen ezagutza.

· B1 gida baimena.

· Inguruko izatea baloratuko da.

943 147 019

▶ TOLOSALDEKO HITZA.INFO

'Zeuk idatzi'.

Tolosaldearekin eta Leitzaldearekin zerikusia duen edozein albiste sartzeko aukera eskaintzen dizu euskarazko egunkariaren webguneak, *Zeuk idatzi* atalean. Animatu eta parte hartu!

ATLETISMOA ▶

Amaitu dute Pista Estaliko Txapelketa

Gehienek markak hobetu dituzte; Gipuzkoakoan bi urre erdietsi dituzte

ERREDAKZIOA

Tolosa CFko atleta bana izan ziren Pista Estaliko Espainiako Txapelketan kadete eta jubenil mailetan eta bi ordezkari junior mailan. Kadete mailan, txapelketa Oviedon izan zen, martxoaren 11 eta 12ko asteburuan, eta bertan Xabier Artieda ibartarrak 5. postua eskuratu zuen 300 metrotako proban

bere marka 38'88ra jaitsiz. Jubenil mailan Donostian Espainiako Txapelketa jokatu zen, bertan Oihane Vazquez 1.500 metroko lasterketan sailkatu zuen finalerako. Bertan, «izugarriko lasterketa» eginaz 5. sailkatzea lortu zuen.

Junior mailan Amaia Jauregik eta Amaia Seguroiak Zaragozan parte hartu zuten 400 metrotako proban. Biak oso



Proba konbinatueta parte hartu zuten kirolariak, garaikurrekin. HITZA

denboraldi ona eginik joan ziren. «baina ezin izan zuten nahi bezain ondo ibili». Amaia Jauregik, hala ere, finalerdietara sailkatzea lortu zuen eta bere txandan 3.a izan zen. Bestalde, Amaia Seguroiak ezin izan zuen finalerdietara pasatu. Honenbestez, pista estaliko denboraldia amaitu da, eta ia atleta guztiek markak hobetu dituzte.

Gazteak fin, Gipuzkoakoan

Asteburu honetan hasi dira, Lasarteko pistan, Eskolarteko I. Gipuzkoako Txapelketa. Tolosa CFk hainbat «emaitza aipagarri» lortu zituen bi mailetan, eskualderek «indartsuena» bezala agertuz.

Infantil mutiletan, txapeliduna Orixe institutuko Lander Gil

izan zen, 2.400 puntuekin. Po diumean ere Hirukideko Iker Epelde izan zen hirugarren postua erdietsiz. Laskoraingo Xabier Leundak 6. postua lortu zuen, «hobekuntza ona erakutsiz», eta Josu Gomez 9. sailkatu zuen. Ander Ortiz anoetarrak, berriz, 11. postua lortu zuen.

Infantil nesketan, Sandra Lopezek Gipuzkoako txapelidun izatea lortu zuen 1.904 punturekin. Alebin nesketan, Iruñe Agirrezabala Gipuzkoako txapelidun berria da, 1.394 punturekin. Bere lehiaketa «aipagarria» izan zen, eta infantilek baino marka hobeak egitea ere lortu zuen proba batzuetan. Txapelidunorde Mireia Igartua geratu zuen eta Nerea Gangoiatik 11. postua lortu zuen.

Alebin mutiletan ere izan zen «emaitza onik». Anoetako ikastolako Kepa Eizagirrek 4. postua lortu zuen eta Hirukideko Joseba Amondarain, aldiz, 14. postuarekin egin zen.

GIZARTEA ▶



F1-eko zirrara gertuago bizitzeko beta

N. Lataburu ▶ Renault zirkuitua aurkeztu zuten, pasa den astearte iluntzean, Tolosan dagoen Autoberrri kontzesionarioan. Bertan box-etako mugimendua irudikatzen duen tamaina errealeko maketa jarri dute ikusgai —argazkian ikus daitekeen—. Halaber, aste guztian zehar, Formula 1eko lasterketa baten simulatzaile den auto bat jarri dute; edonork har dezake parte eta bira azkarrena ematea lortzen duen jokariak bideo kotsola irabaziko du. I. T.

GIZARTEA ▶

Arrazakeriaren Aurkako Astean, 'La marcha' filma

ERREDAKZIOA

Arrazakeriaren Aurkako Astearen harira antolatutako ekitaldien baitan, *La Marcha* izeneko filma izango da ikusgai, Kultur Etxean, 19:30etik aurrera.

La Marcha ia orain dela bi hamarkada filmatutako pelikula da, eta Sudango tribu batek Europara emigratzeko hartutako erabakiaren berri ematen du.

hitza

lagunen txokoa

▶ HITZAREN HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5*-eko BEHERAPENA izango duzuzure EROSKETETAN

*Promozio hau ez da beste beherapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

▶ Txartela HITZAREN harpidedun ordaintzaileek bakarrik eskuratuko dute; deitu 943 30 43 46 telefono zenbakira

Egin zaitez harpidedun!

DENDA HAUEK HITZA-REN LAGUNTAILEAK DIRA

Avalon
 o s a g a i a k
 korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

honetekin
 TOLOSA
 Tel.: 943 67 22 44

kanikak
 San Frantzisko, 21 • Tolosa
 Tel.: 945 65 27 46

Gudari kalea, 5 • TOLOSA
 Tel.: 943 65 04 62

ILUMINAZIOA

SHANTI KIROLAK
 Rondilla, 11
 TOLOSA
 Tel.: 943 67 40 74

MUGAR
 Nafarroa etorb. 16 • TOLOSA
 Tel.: 943 65 56 85

LIZARRIBAR
 OINETAKOAK
 Arostegieta kalean
 TOLOSA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAREN harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero

ALKIZA ▶ AGENDA 21

Herritarrek lehentasunak zehaztu dituzte batzarrean

Zazpi lerro estrategikoen gainean eztabaidatu zuten bilerara agertutakoek

ERREDAKZIOA

Tokiko Agenda 21 egitasmoaren baitan, Alkizan herri batzarra burutu dute. Bileran horretan, guztira zazpi lerro estrategikoen gainean hitz egin zuten, eta lehentasunak zehaztu zituzten batzarrera bildutakoek.

ETXEBIZITZA, OINARRIZKO ZERBITZUAK ETA BIZI KALITATEA

Etxebizitza politika. Herritarrek etorkizunera begira herriak zenbat eta nola hazi behar duen hausnartzeko eta eztabaidatzeko eta etxebizitzaren itxura eta urbanizazio modu egokiak finkatzeko bilera irekiak antolatu —Arau Subsidiarioen berrikuspenarekin lotuta, hasierako fase bezala...—.

Oinarrizko zerbitzuak. Internet zerbitzua hobetzeko beharrezko gestioak egiten jarraitu —Udala dagoeneko ekintza hori burutzen ari da—.

Hezkuntza zerbitzuak. Eskolaren eta Udalaren arteko harremana hobetzeko, Eskola Kontseilutik kanpo, eskola komunitatea osatzen duten eragile guztiak biltzeko bilerak antolatu, eskolarekin koordinatuta.

Aisialdia, kultura eta kirol zerbitzuak.

▶ Alkizak duen kirol ekipamendu bakarra, frontoia, eraberritu eta bertan gimnasio bat egokitze beharra aztertu.

▶ Herrian bertan egin ezin diren kultur, kirol eta aisialdi



Alkizarrek egindako herri batzarraren une bat. HITZA

ekintzetarako urteroko diru laguntzak eskaini edo inguruko herrietako erakundeekin hitzarmenak sinatu.

Osasun eta Gizarte zerbitzuak.

▶ Aurreikuspenak egin ahal izateko, etorkizunean izango diren hirugarren adineko eta pertsona elbarrituei buruzko azterketa egin.

▶ Don Juanena etxea berritu.

HERRITARREN MUGIKORTASUN BEHARRA

Autoaren erabilera.

▶ Herri barruan autoen abidura mantsotzeko dispositiboak jartzeko eta seinaleztapena hobetzeko gestio-harremanak mantendu Gipuzkoako Foru Aldundiarekin, eta hainbat alternatiba aztertu.

▶ Plazan autoek duten presentzia gutxitze beharra aztertu —besteak beste, inkesta bat egin...—.

▶ Espaloietan aparkatzea egokitze dispositiboak ezarri.

Udalerriaren irisgarritasuna.

▶ Udaletxera, Kultur Etxera eta eraikuntza berrietara erraz

iristea ahalbideratzeko oztopo arkitektonikoak kendu, ahal den neurrian.

UR/ENERGIA/HONDAKIN ZERBITZUAK

Ur hornikuntza eta ur kontsumoa. Herrigunetik kanpo dauden etxeetan hobi septiko komunak ezartzeko beharra aztertu eta arautu.

Energia hornikuntza sistema. Gas depositu kolektiboak bultzatu.

EKONOMIAREN SUSTAPENA ETA DIBERTSIFIKAZIOA

Lerro estrategiko honetan herritarrek ez zuten lehentasunik zehaztu.

BASERRI BIZITZA

Nekazal lurrak. Nekazal lurrak babestu beharra kontuan izateko, Arau Subsidiarioen berrikuspen fasean, Tolomendi landa garapenerako agentziari gai honi buruzko aholkularitza lanak egitea eskatu.

Lehen sektorea.

▶ Neurri lagungarriak (bideak garbitzea...) ezartzen jarraitu.

▶ Ernio aldeko larre sailen kudeaketa komunaren egokitasuna eta bideragarritasuna aztertu.

JARDUERA EKONOMIKOEN INGURUMEN ERAGINA

Pinu landaketak hirigunera gerturatzea ekiditeko araudia garatu.

UDAL KUDEAKETA ETA HERRI KOHESIOA

Arriskuen analisisa eta kudeaketa. Herritarren suteetarako edo beste motatako larrialdietarako prestakuntza hobetzeko aukerak aztertu.

Herritarren eta Udalaren arteko komunikazioa. Arau Subsidiarioen berrikuspenaren herriaren parte-hartzea eta herritarrek proiektuaren berri izatea bermatu.

Parte-hartzea eta herri giroa. Tokiko Agenda 21 egitasmoaren baitan, herri batzarra egiten jarraitu.

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Behorra. Gainean ibiltzeko hamar urteko behorra salgai, beharrezko guztiarekin. Interesatek deitu 609 44 25 09 telefono zenbakira.
Lokalak eta garajeak. Leitzan lokalak eta garajeak salgai. Eraikuntza berrian. Deitu

MUSIKA ▶

Loatzoko bi talde Elgoibarko lehiaketan

Loatzo musika eskolako bi talde instrumentalek Elgoibarren egingo den talde lehiaketan hartuko dute parte bihar. Haitz-txiki eta Haitz-bakar taldeak osatzen dituzten Loatzo ikasleak izango dira parte-hartzaileak. Villabona, Anoeta, Irura eta Aduna herrikoak dira taldekideak. Lehiaketa horretan Euskal Herri mailako taldeek hartzen dute parte.

ASTEASU ▶

'Orain herria, orain bakea' hitzaldia

Orain herria, orain bakea proposamena aurkeztuko dute gaur, 20:00etan, Kultur Etxean. Hizlaria Josetxo Ibaizeta izango da. Ezker abertzaleak deialdia egiten die herritarrei parte hartzeko.

LARRAUL ▶

Herri batzarra bihar, Katillutxulo elkartean

Herri batzarra deitu dute biharko, 16:00etan, Katillutxulo elkartean. Bi gai eztabaidatuko dituzte: herriko ur sareko ziklo integrala Gipuzkoako Ur Kontsultazioaren esku uztea eta herriko museoren etorkizuna.

ZIZURKIL ▶

Otañoko Euskara Astearen azken eguna gaur

Gaur emango diote bukaera Pedro Mari Otaño eskolako Euskara Asteari. 12:00etan 5. eta 6. mailako hitzaldia izango da piratei buruz. Eta arratsalde osoan zehar gurasontzat eta ikasleentzat jolasak antolatu dituzte.

ENTORNOS EIU
INMOBILIARIOS URBANÍSTICOS

- **Tolosa.** 3. pisua igogailuarekin. 60 m². 3 logela, sukalde amerikanoa, komuna. Oso egoera onean. 44.500.000 pza.
- **Alegia.** 95 m². Dena kanpoaldera, eguzkitsua. 3 logela, egongela, sukalde, komuna, garagea. 216.000 euro.
- **Ibarra.** 2. pisua igogailurik gabe. 68 m². Erabat berriua. 41.150.086 pza.
- **Billabona.** 3. pisua igogailuarekin. 70 m². 2 logela, egongela, komuna, sukalde eta jangela.
- **Amezketak.** Pisua isa berria. 140 m². 5 logela, 2 komun, hidromasaja, Dena kanpoaldera. Garajea. 301.000 euro.

943 69 84 04 • www.entinurb.com

LIZARBI
Kutxa, mahai, sarti etak.
Alkizariak Zurgintza onakorra
Lekuzkako zurgintza Zurgintza berria
Dena Euzkara osan
Tel.Fax: 943 698 962 - TOLOSA

637 80 60 44 zenbakira.

LANA

Ileapaintzailea. Ileapaindegirako langilea behar dugu, lanaldi erdirako. Bidali curriculum-a eta argazkia Tolosako 267 posta.kubatilara.

PILOTA ▶



Ugaitz Renobales alegiarra (eskuinean) iaz txapelkun izan zen GRAVN txapelketan. HITZA

GRAVN Txapelketa «ezin hobeto» hasi dute

Arabarrak mende izan dituzte gipuzkoarrek binakako partida guztietan, eta bihar bizkaitarren kontra ariko dira

NEREA URBIZU

Lehenengo asteburuan eman zioten hasiera GRAVN Pilota Txapelketari: Gipuzkoako, Errioxako (Espainia), Arabako, Bizkaiko eta Nafarroako pilotarien arteko txapelketa da, eta Euskal Pilota Federazioak antolatzen du.

Tolosaldeak ere badu ordezkariak txapelketa honetan. Hain zuzen ere, Legarreta, Galarraga, Renobales, Olaetxea eta Baez pilotariak lehiatuko dira.

Probintziak jokatzeko txapelketa: aurreko asteburuan gipuzkoarrek arabarren kontra lehiatu ziren, eta erraz garaitu zituzten. Oraingoan Bizkaikoen kontra jokatu dute; partidak gogorragoak izango direla uste dute.

Eskuz banaka eta binakakoan jokatzeko gain, palarekin eta zestarekin ere jokatzeko dute, hurrengo kategorietan: gazteena, 22 urte azpikoena eta nagusi edo seniorrena.

Bestelako partidak

Partida hauek Bizkaian jokatu dira, baina asteburu honetan badira inguruan norgehiagokak ikusteko aukera ere: Belloso-Oteiza Beotibarren ariko dira igandean, 17:00etan, promozio fasea jokatzeko, lehenengo lauren artean geratu zirelako elite mailan. Paz de Zigandakoak izango dituzte arerio.

Apirilaren 8tik aurrera, bestalde, HITZA Txapelketa hasiko da. Hainbat mailatako pilotariak jokatu dute; horien artean, txikiak ere ariko dira.

JOKALARIAK ▶

GAZTEEN MAILAN

Unai Legarreta. Berez urrietarra bada ere, Zazpi-Iturri Amezetako pilota eskolako jokalaria da.
Koldo Galarraga. Aurrera-Saizaren jokatzeko du, eta Bidegoiangoa da.

22 URTE AZPIKO MAILAN

Ugaitz Renobales. Alegiarra da, eta Aurrera-Saiaz pilota eskolakoa.
Mikel Olaetxea. Lizartzar hau ere Aurrera-Saizaren ari da.

NAGUSIEN MAILAN

Igor Baez. Jokalari hau Zazpi-Iturri pilota eskolan aritzen da.

AMEZKETA ▶ HIRIGINTZA

Sahiesbidea bide onetik doala baieztatu dute

Iragan abenduan hasi zituzten obrak, esan bezala, «urrirako amaituko dituzte»



Hau da sahiesbidearen hasierako zatia. N. URBIZU

N. URBIZU

«Espero bezala» doaz aurrera Amezetako sahiesbideko lanak, printzipioz, herriko trafikoa arintzeko izango dena.

Abenduan esan zuten bezala, irailerako espero dute dena amaitzea, berandutzat, urria izanen delarik. Orduan urtebete hasi zituzten Amezetako sahiesbidea egiteko obrak.

Lur-kentze gehienak egin

dituzte, eta erritmo onean doaz obrak, «eguraldiak gehiegi lagundu ez badu ere», Julian Sagastume alkateak gaineratu duen bezala.

Hiru zubi egingo dituzte: bata herrira sartzeko biribilunearen parean, bestea Abaltzisketara joateko bidearen parean eta, azkenik, Aralar paper fabrikara joango dena. Orotara, 800 metroko luzera izango du sahiesbide honek.

AMEZKETA ▶

Euskara Elkartearen bilera, gaur

Amezetako Euskara Elkar-teak beste bilera baterako deialdia egin du, gaur, 19:00etarako. Balio antzeko gelan elkartuko dira, eta esku artean dituzten gaiak eta asmoak bideratzeko baliatuko dute hitzordua. Inauteriak igaro ondoren birritan bildu badira ere, gaurkoan jende gehiago elkartzea espero dute antolatzaileek, «denon artean ideia kopurua areagotzeko».

ORENDAIN ▶

Landaretzarekin loturiko hitzaldia bihar arratsean

Orendaingo Kultura batzordeak hitzaldia antolatu du: bihar izango da, 16:00etatik 18:00etara, udaletxe areto nagusian. Jagoba Errekon-dok bideratuko du lorezaintza, laborantza eta nekazaritza gaiak jorratuko dituen hitzaldia. Bertan jendeak parte hartu ahal izango du: solasaldia egingo dute, eta galdeketak ere egiteko aukera izango da. Herritar guztiak gonbidatu dituzte batzordekoek.



ELOLA ALTZARIAK

Banataile Ofiziala 

- Etxeko altzariak.
- Ordenagailuz egindako proiektuak.
- Armairu enpotratuak neurria.

Lizardi poeta, 2 - Tel.: 943 65 29 01 - TOLOSA

Zuloaga & Gureak-en zure landarea dago.



“Zatoz gura instalazio herriak ezagutzera eta zure landarea aukeratzeko orduan edo eta zurekin gehien dihoan loraintza proiektu hori aurrera eramateko behar duzun aholkularitza izango duzu.”

Ramón Zuloaga (Zuloaga & Gureak-eko Gerentea)

943 556 109 - Iparralde bidea z/g. 20014 Astigarraga. Futbol zelaiaurrean.



zure konfidantza zure gardena

IBARRA ▶ MUSIKA

Gatillazo taldeak zuzeneko eskainiko du bihar Gaztetxean

Kontzertuaren aurretik sagardotegian afaria antolatu dute Gaztetxeko kideek

INIGO TERRADILLOS

Ibarrako Gaztetxeak eta Eneko Aritzaren Lagunak Kultur Elkartek antolatuta, Gatillazo taldearen kontzertuaz gozatze-ko aukera izango da bihar Gaztetxean, 23:30ean. Aurretik, ordea, sagardotegian afaria antolatu dute Gaztetxekoek. Hala, autobusak jarriko dituzte sagardotegira joan, eta afaldu ondoren Gaztetxera, Gatillazoren zuzenekora, bueltatzeko. 20:30ean irtengo da autobusa Ibarrako Benito Izagirre kultur etxearen paretik. Afarirako eta kontzerturako txartelak eskuratzeko, Ibarrako Atari eta Tolosako Denak tabernetara jo beharko da, eta Ibarrakoak diren ikasleek eta langabetuek 15 euro eta gainontzekoek 25 euro ordaindu beharko dituzte.

La Pollaren jarraipena

La Polla taldea zilarrezko ezteiak bete baino lehen sakabatu zen, baina ez taldeko musikariak nekeak ahituta

desagertu zirelako. Izan ere, Evaristo abeslariak The Kagas eta The Meas proiektuetan jarraitu zuen lanean, eta ondoren sortu zen Gatillazo taldea.

Ez da La Polla, baina haren jarraipena dela ezin da ezkutatatu. Aguraingo abeslariak dioenez, «letrak idazteko eta abes- tiak sortzeko askeagoa sentitzen dut neure burua». Harekin batera, Xabi ariko da baxua jotzen, gitarrak Osoronek eta Txikik joko dituzte, eta bateria, Tripik. Gatillazoren diskoa Oihuka disketeak kaleratu du, eta guztira 21 abesti ditu. Punk soinuaren betiko ardatzak dira, eta era guztietako gaiak izan dituzte mintzagai. Diskoa Arrasateko Shot estudioetan grabatu zuten, Iñaki Bengoaren gidaritzapean.

Ez da Aguraingo abeslariak Ibaran zuzeneko eskaintzen duen lehendabiziko aldia, duela 7 urte izan baitzen Gaztetxean, La Polla Records taldearekin. Oraingoan, proiektu berriaren aurkezpenarekin bueltatuko da.



23:30ean izango da Gatillazoren kontzertua. HITZA

IBARRA ▶

Odola emateko deialdia gaur arratsaldean, anbulategian

ERREDAKZIOA

Odol-Emaleen Elkarteak gogorarazi du odola emateko aukera izango dela gaur, 19:00etatik 21:00etara, anbulategian. «Kontuan izan behar dugu odola ematea ez dela keinu hutsala, garrantzi handiko ekintza baizik», azaldu dute Odol-Emaleen Elkarteak.

«Eskuzabaltasunetik, elkartasunetik eta konpromisotik haratago joatea esan nahi du, gizarte erantzukizuna da». Halaber, odol-emalea izatea konpromiso boluntarioa dela eta osasun egoera kaskarra dutenentzat behar handia dela gehitu dute.

Odol-Emaleen elkarteak, batez ere herriko gazteak garuko hitzordura deitu nahi ditu odola ematera

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ Alegialdea. Osasun z.: 653212
 - ▶ Anoeta-Alkiza-Hernalde.
 - Medikua: 65 23 39
 - ▶ Asteasu. Medikua: 692423
 - ▶ Baliarrain. Medikua: 889003
 - ▶ Berastegi-Elduain. Medikua: 683361
 - ▶ Bidegoian. Medikua: 681134
 - ▶ Ibarraldea. Osasun ebea: 672411
 - ▶ Ikaztegieta. Medikua: 653329
 - ▶ Irura. Osasun zentroa: 690720
 - ▶ Leitza. Osasun z.: 948 510800
 - ▶ Orendain. Medikua: 655595
 - ▶ Oresa. Medikua: 682228
 - ▶ Tolosa.
 - ▶ Anbulatorioa, larriald: 461111
 - ▶ San Esteban: 006800
 - ▶ Gernikako arbola: 006900
 - ▶ Amaroako dispen.: 672637
 - ▶ Asunzion klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
 - ▶ DYA: 672536
 - ▶ Gurutze Gorria: 674888
 - ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
 - ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb: 693930
- #### Garraioak.
- ▶ Renfe: 902 24 02 02
 - ▶ Donostiako autobusa: 361740
 - ▶ Tolosaldea bus: 650621
 - ▶ Leitzaran autob.: 948 221015
 - ▶ Taxia: 670420
 - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- #### Besterik.
- ▶ Ertzaintza: 538820
 - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
 - ▶ Tolargi: 650016
 - ▶ Iurramendi egoitza: 670325
 - ▶ Tolosa gasa: 675320

BERROBI ▶ GIZARTEA



«Giro polita» izan dute Bastidara eginiko irteeran

I. Terradillos ▶ Larunbatean egun-pasa egin zuten Berrobiko hainbat herritarrek. Hain zuzen ere, 68 lagun elkartu ziren Bastidara joateko asmoz. Bertan, Zaldibar upeltegia bisitatu zuten, eta bazkari legea egiteko aukera izan zuten. Bazkaldu ostean, Aro (Espainia)

ezagutzeko parada ere izan zuten berrobitarrek. Arratsalde-iluntze partean, autobusera igo eta etxera bueltatzeko unea iritsi zen. «Oso giro polita sortu zen, eta oso ondo igaro genuen eguna», azaldu dute antolatzaileek. HITZA

LEITZA ▶ EUSKARA

Herriko atarietan ere eskolak euskaldundu daitezzen sinatuko dute

Gaur eta bihar mahaiak jarriko dituzte plazan eta auzoetan; festa giroan, jaialdia antolatu dute, umeentzat Karrapean

JAIONE ASTIBIA

«Bai eskolak euskalduntzeari» ekimenaren bulkatzaileek, sinadura bilketa herriko auzoetara aterako dute. Horrela, gaur, plazako asteroko merkaturan, eguerditik aurrera, jarriko dute sinadura-mahai bat; gauean, berriz, Torrea tabernan ere sinadura emateko aukera jarri dute; bihar, auzoetara hedatuko dute egitasmoa: 11:00etatik aurrera, Amazabalen, Patxi Arrazolan, Manuel Lasarten, San Josen, Kale Nagusian eta plazan ere bai, guztira sei mahai jarriko dituztela iragarri dute, «16 urtetik gorako

ek sinatu dezaketela soilik», gogorarazi dutelarik.

Honekin batera, kanpainari oihartzunaz batera festa giroa ere emanez, bihar arratsaldetan jaialdia antolatu dute. 18:00etatik aurrera Karrapean, umeentzat antzerki emanaldia egingen dute: Txantxilipurdi taldearen *Top-manta* antzerki musikala. Ondoren, bertan bilizten den guztiarentzat arratsaldeko mokadua eskainiko dute, herriko txistulariek alaituta.

Euskararen arloko Euskal Herriko eta herrian bertako eragileek sustatuta, Leitzan bezala, Euskal Herrian barrena

egiten ari diren sinadura bilketarekin «Euskal Herriko haur eta gazteek benetako euskarazko hezkuntza jaso dezaten» eskatzea dute helburu.

10etik 7k ez du ikasiko

Euskararen ezagutzari buruz, gaur egungo hezkuntza sistemaren emaitzak aztertu eta argitaratu dituzten datuen ariora, EAEn dauden ia 433 mila ikasletatik %68,2 euskaldundu gabe aterako da eskoletatik. «Gezurra dirudien arren, baina D eruditik ere: ikasleek ustez osoki euskarazko hezkuntza jasotzen duten arren, %32k ez

DATUAK* ▶

D eredua. 164.375 ikasletatik, 52.600 euskalduntzekoak.

B eredua. 72.419 ikasletatik, 48.520 euskalduntzekoak.

A eredua. 106.269 ikasletatik, denak euskalduntzekoak.

G eredua. 89.666 ikasletatik, denak euskalduntzekoak.

*EAEko datuak dira honako hauek.

luke euskararen ezagutzari buruzko azterketarik gaudituko. Gainerako eredueta, nekez», diote.

Adierazgarritzat jo dituzte datu hauek, «dugun hezkuntza sistema honek ez duela euskalduntzen frogatzeko». Eskara: «Eskoletatik ateratzen diren ikasleek euskaraz jakitea bermatu behar da: oinarrizkoa da euskaraz ikasteko aukera izatea lehenik eta, noski, beste hezkuntza sistema bat».

GAZTERIA ▶

Leitza eta Aresotik Gazte Olinpiaden finalera doaz

Irunberrin jokatuiko dituzte azken saioak, Gazte Egunaren baitan, 18:00etan

J. ASTIBIA

Bihar arratsaldetan Irunberrin jokatuiko dituzte Gazte Olinpiaden Nafarroako finalak eta haraxe doaz Leitzako eta Aresoko autobuskada bat gazte, tartean Goizueta-rrak ere bai.

Finaletan bi taldetan jokatu omen dute, Leitza-Areso batetik, goizuetarrek bestetik. Jokoen ondoren, hango gazte eguna izaki, antolatuta dauden ekitaldietan parte hartzeko asmoz doaz, tartean herri afaria. 16:00etan Ateka-beltzetik aterako omen dira, «inor animatzen bada» jakinarazi dutenez.

LEITZA ▶ NAFARROAKO BERTSOLARI TXAPELKETA

Puntu batengatik, baina Riaño leitzarra Nafarroako Bertsolari Txapelketako finaletik kanpo gelditu da

Riaño 383, Sotok 384, hara aldea; heldu den apirilaren 1ean, Elizondon jokatuiko dute finala

J. ASTIBIA

Riaño 383 puntu lortu zituen Leitzako finalurrekoan, hirugarren eginda; Julio Sotok 384 puntu lortu zituen Etxarri Aranzekoan, postu berean. Hori xe da koska, ttikia, baina nahikoa, Nafarroako Bertsolari Txapelketan hurrengo urratsera igarotzea jokoan egonik, alegia, finalean egotea, erabakiorra suertatu da puntuaketan

lortutako alde ttiki hori, kasu honetan Sotoren alde.

Atarrabiako azken finalurreko saioa baino lehen, orduerako bi eginak zituzten. Saioen irabazle suertatuta, Estitxu Arozena eta Jose Juan Zubieta *Etxabe* zuzenean sailkatuta zeuden finalerako; eta puntuen ariora, berriz, Erika Lagoma, Julen Zelaieta eta Soto bera ziren leitzararren aurretik zeudenak. Azken saio horretarako,



Riaño, Leitzako saioan. J. ASTIBIA

lehen sailkatuarentzat eta beste batentzat zegoen lekua, beti ere 383ko arrasto hortatik gora igaro gabe.

Atarrabian, jende aldetik ere berotasunezko giroan, oso saio dotorea egin zuten bertsolariek. Silveirak eta Barbereanak ere txapelketa guztian inork baino puntuaketa altuagoak lortu zituzten —horra bi—, eta Iñigo Olaetxeak ere finalerako pasea eskuratu zuen,

FINALA ▶

Eguna. Apirilaren 1a.
Herria. Elizondo.
Tokia. Lur aretoa.
Ordua. 18:00ak.
Partaideak. Xabier Silveira, Jon Barberena, Estitxu Arozena, Jose Juan Zubieta *Etxabe*, Julen Zelaieta, Erika Lagoma, Iñigo Olaetxe eta Julio Soto.
Gai jartzailea. Alaitz Rekondo.

Riañoaren aurretik, Sotorena ere gaudituta.

Horrela, finaleko atarian gelditu da leitzar gaztea, aurtengoan, eta jendartetik ikusi behar harko du Elizondoko saioa.

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK Telf.: 943 65 56 95
19:00ak arte hartzen dira tolosaldean@tolosaldekohitza.nfo

hilberria ▶

Milagros Gastesi Ibarluzea

(Joakin Maizen alarguna)

Martxoaren 22an hil zen, Azpeitian, 76 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

—Golan bago—

Ilun aldietan ilargi bete nahigabe garaian alai-elkarle edonon eta beti artizar eder ez agurrik ama/amama

ZERURA ARTE

Helbidea ▶ Eliz kale 38 - 4.

Oharra ▶ Bellatokia Azpeitiko tanatorioan dago.

Bere seme-alabak: Jesus eta Irune Azkargorta; M^{te} Lourdes eta Pedro M^{te} Larrañaga; Fco. Javier eta Begoña Amubieta; Andres eta Marian Peña; Fermín eta Belen Iginiz;

Bilobak: Gotzon eta Matte Segurola, Maitte, Idoia; Arantxa eta Iñigo Bettia, Mirari; Lierni, Mikel, Miren; Beñat, Ane; Joseba, Ainhoa.

Haren aldeko otowitz bat eskatzen dizute eta arren etor zaitzela GAUR, ostirala, 19:30ean, Azpeitiko Soreasuko Sebastian Donearen parroki elizan egingo den hileta. Aldez aurretik, mila esker.

AZPEITIA, 2006ko martxoaren 24a



